

ERASMUS beka baten onuradun diren ikasleek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Curriculum vitae betetzea, eta baita proiektua abiatzeko ezinbestekoak diren tramiteak egin ahal izateko beharrezkoak diren gainerako dokumentuak ere.
2. Arreta edo laguntza berezia eskatzen duen gaixotasunen bat pairatuz gero, horren berri ematea ikaslea hartuko duen zentroari. Hori egin ezean, ikasle onuraduna izango da gerta litekeen edozein gorabeheraren erantzulea.
3. Onartzea HETELek eta bazkideak antolatutako bidaia eta ostatua
4. Proiektuan ezarritako programa betetzea: datak, egonaldiaren lekua, izendatutako enpresa, praktikaldiaren iraupena, eskatutako dokumentazioa. Egonaldiaren erdian derrigorrezkoa da pratiken koaderno bidaltzea.
5. Errespetatzea harrerako enpresak ezarritako diziplina, beraren lan-ordutegia, konfidentzialtasuna, legezko xedapenak, egonaldia arazorik gabe amaitu ahal izateko.
6. Kontaktua izatea ikaslea bidaltzen duen zentroarekin, gutxienez hamabostean behin, zen tro horrek proiektuaren garapenaren jarraipen egokia egin ahal izan dezan.
7. Desadostasunik edo kexarik izanez gero, dela proiektuaren garapenari dagokionez dela beste edozein alderdiri dagokionez, ikasle onuradunak horren berri emango dio berehala bitartekotza egiten duen zentroari eta harrerako zentroan duen tutoreari, baina ez, inoiz ere, beste zentro edo pertsona bati.
8. Proiektuaren amaierako txostena egin ahal izateko beharrezkoak diren dokumentu guztiak betetzea. *Amaierako txostena; OLS maila proba, ...
9. Dokumentua sinatu ondoren, Lantokiko Etengabeko Prestakuntza (FCT) gauzatzeko baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen du. Baldintzak betetzen ez baditu, edo egonaldia eteten badu ez dagoenean ezinbesteko arrazoirik tartean, **jasotako laguntza itzuli beharko du ikasleak** eragilearen kontuan –HETEL-, eta gasturik sortu badira, ikasleak bere gain hartuko ditu gastu horiek. Gainera, ez du Lantokiko Prestakuntza (FCT) aprobaturik.

Izen-abizenak:

NAN:

Ikaslea bidaltzen duen zentroa:

Data eta sinadura: